



# Pablo Becerrari

## HHIko irakasleari, agurra

---

### ZURE IKASLEAK

Joan den otsailaren 6an Errenteriako HHIko ehun ikasletik gora elkartu ziren Pablo Becerra Iturgaitz irakaslea agurtzeko, erretiroa hartu zuela-eta. Irakaskuntzan hamar urteko lanaren amaiera zen, Errenteriako Helduen Heziketa Iraunkorrerako ikasgeletan Artearen Historia eta Geografia irakaste lanetan emandakoa, hain zuzen ere.

Ospakizunari hasiera emateko taldearen argazkia egin genuen Errenteriako Jasokundeko Andre Mariaren elizaren eskaileretan. Ondoren, bazkariaz gozatzeko aukera izan genuen.

Bazkariaren amaieran ikasleek zirrara eragiteko moduko agurrak, prosaz nahiz bertsoz, irakurri zituzten, eta kolofoi gisa ikasle talde batek “Mendian gora haritza” melodiaz osatutako bertsoak kantatu genituen.

Bertso horiek argitaratu nahi ditugu Pablo Becerrari omenaldi gisa, bere pedagogia-lanaren laburpena eta bere ikasleek lan horri buruz duten iritziaren lekuko zuzena baitira.



Omendutako irakaslea eta kasle taldea

1

Irakasteko antsia,  
azalduz pazientzia:  
Erdi Aroan gertatutako  
gauzen garrantzia.  
Artearen esentzia  
aurkezten elegantzia,  
jakinduria dariolako  
da maisu jantzia.

2

Gaiak modu logikoan  
eta oso praktikoan  
emanez maila ikusten zaio  
Erromanikoan.  
Ia berdin Gotikoan,  
era kronologikoan;  
maisutasuna bistan uzten du  
lehenbizikoan.

3

Ikasi arkitektura,  
pintua zein eskultura,  
gureganatu dugu lehendik  
datorren kultura.  
Arkuekin egitura  
eraikiz euren modura,  
zutik mendean pasata sortzen  
digu harridura.

4

Katedrala, basilika,  
eraikitze teknika:  
zutabe, arku kapitel motak  
ditu errepika.  
Pintura zein zeramika ...  
Gelatik kanpo, praktika:  
bidaian landuz toponimia  
eta botanika.

5

Leku-izenen zerrenda,  
oparoa izaten da:  
aipatzen ditu baserri asko  
eta azienda.  
“Hemen errepede, xenda;  
meategi hartan blenda ...”  
Bazterrak ondo ikasi eta  
beteta agenda.

6

“Zuhaitz, enbor nahiz adaska,  
haritz, arte zein karraska,  
natur berdean aurkitzen dute  
abereek bazka;  
hor bertan daukate aska.  
Eztiaren abraska ...  
Mendi hartako gotorlekuan  
izan zen gatazka”.

7

Historia zein Artea,  
bat bestearen partea,  
landuz hobeto ulertzen dugu  
gaurko gizartea.  
Bizitzaren aldartea:  
hobetzeko elkarte:  
urte hauetan lortu duguna  
da lagunartea.

8

Eskolan gure gidari,  
hitzaldietan hizlari,  
motibazio handia sortuz  
beti taldeari.  
Zor diogunez berari,  
orain bertsoan kantari  
eskerrak eman nahi dizkiogu  
Pablo Becerrari.